

Emakumea bazara eta GIB birusa baduzu, clinicalegal@uah.es helbide elektronikora idatz diezagukezu Osasun Sistema Nazionalen laguntza bidezko ugalketako tratamenduak jasotzeko duzun eskubideari buruz dituzun zalantza guztiak argitzeko.

Nola jar naiteke harremanetan Alcaláko Unibertsitateko Klinika Juridikoarekin?

Bidali zure kontsulta gure helbide elektronikora
clinicalegal@uah.es

Gogoan izan:

Klinika Juridikoak doan eskaintzen du zerbitzu hori

GIBa duten pertsonei eskubideak baliatzeko aukera ematean espezializatuta dago

Zerbitzu anonimoa eta konfidentziala da

Zure kontsultei erantzuten dietenak Zuzenbideko ikasle eta irakasleak dira

DECADE katedra
Alcaláko Unibertsitatea
catedradecade@uah.es

Alcaláko Unibertsitateko
Klinika Juridikoa

@ clinicalegal@uah.es

f ClinicaLegalUAH

🐦 ClinicaLegalUAH

HONAKO HAUEN LAGUNTZAREKIN:



13

Alcaláko Unibertsitateko
Klinika Juridikoa

**GIBa eta
generoa**

EU



GIBa eta genero-ikuspegia

Giza eskubideei eta politika publikoei buruzko edozein analisisik exijitzen duen bezala, GIB birusaren aurkako ekintzek zeharkako genero-ikuspegi bat behar dute, hau da, generoa kontuan izatea politika publikoak formulatzeko eta garatzeko analisirako eta proposamenerako ardatz berezi gisa.

Genero-ikuspegiak esaten digu historikoki diskriminatuak izan diren bi kolektibotako kide diren pertsonak bereziki kalteberak direla GIB birusaren aurrean: emakumeak eta LGTBIQ kolektiboko kideak.

Emakumeen kalteberatasuna gorputzaren, sexualitatearen eta ugalketa-gaitasunaren inguruan eraikitako alderdi sozial eta kulturekin lotuta dago. GIB birusari buruz hitz egiten dugunean, beharrezkoa da kontuan izatea GIB birusa duen emakume bat izateak duen inpaktua, kasu horretan bereziki garrantzitsua baita, adibidez, planteatzen eta garatzen diren politika publikoetan haien sexu- eta ugalketa-eskubideak kontuan hartzea.

Emakume izate hutsagatik aurre egin behar dieten egoerak direla eta, beharrezkoa da genero-ikuspegia estigma eta diskriminazioa murrizteko programetan, bai eta generoarekin lotutako alderdiei buruzko berariazko prestakuntza ere.

Generoaren inpaktua GIBean

Hainbat alderditan agertzen da genero-inpaktua GIB birusaren arloan:

- Emakumeak dira, mundu mailan, GIB birusa duten pertsonen % 50 eta, Espainian, % 15 emakumeak direla zenbatesten da (intzidentzia handiagoa da emakume etorkinetan).
- GIBa duten emakumeenganako indarkeria handiagoa dago, familian zein familiatik kanpo.
- Lagundutako ugalketa-teknikak erabiltzeko oztopoak dauden eta, batzuetan, zalantzan jartzen da seme-alaba adingabeak zaintzeko eta adopzioan hartzeko egokiak ote diren.
- Erretrobirusen aurkako botikekin egiten diren saiakuntza klinikoetan, oso ordezkaritza txikia izaten jarraitzen dute emakumeek, eta horrela, ez dira horren ondo ezagutzen botikok haien organismoan nola eragiten duten.
- Sakonago aztertu behar da GIB birusak emakume transexual, intersexual eta transgenderoetan duen eragina.
- Egoera serologikoa ezagutzea onuragarria den arren, GIB birusaren probak haurdun dauden emakumeen baimen informatuarekin egin behar dira beti.
- Ez da inposatu behar GIB birusaren bide sexual zein bertikal bidezko transmititzea prebenitzeko tratamendua.
- Bermatu behar da emakumeek esposizio aurreko profilaxia baldintza berdinetan jaso ahal izatea.

GIB birusaren transmisio bertikala

GIBa duen ama batek, haurdunaldian, erditzean edo edoskitzealdian haurrari GIBa transmititzeari deitzen zaio ama-haurren arteko transmisioa, transmisio bertikala edo jaiotza inguruko transmisioa.

Haurdun dauden emakumeei GIBa detektatzeko proba egitea, tratamendua garaiz ematea, obstetrizia-kontrolak egitea eta osasun-arloko profesionalak ama horiei informazio egokia ematea funtsezko alderdiak dira, birusaren transmisioa saihesteko. Erretrobirusen aurkako tratamenduak, etapa erabakigarrietan, garaiz ematen direnean, % 1 eraino murrizten da haurra infektatuta jaiotzeko aukera.

Espainian doakoak eta orokortuak dira erretrobirusen aurkako tratamenduak. Haurdun dauden emakumeen kasuan, protokolizatuta dago GIB birusagatiko infekzioa umekiari transmititzeko arriskua murrizteko profilaxi hori. Horrekin, GIB birusarekin infektatutako haurren kasuak nabarmen murriztea lortzen da.

Oro har, GIB birusaren aurkako botiken erabilerarako gomendioak berberak dira gizon zein emakumeentzat. Hala ere, badaude emakumeen berezko faktore batzuk, GIBaren aurkako tratamenduan eragina izan dezaketenak. Besteak beste, aipatzekoak dira GIB birusaren aurkako botika batzuek zeharkako efektuak izateko arrisku handiagoa, jaiotza-kontrola eta haurdunaldia.